

Non dago muga?

Iraide Urkiaga

Musika. Koreografia. Borroka.

Haizea: *Berriro ere etxerako lanak!*
Mikel: *Arkatx honek ez du ezertarako balio! (Bota)*
Aini: *Eee, pasatu gabe!!!*
Mikel: *Eeee!!!*
Julene: *Shhh! Andereñoa dator! ... ezetz...*
Itsaso: *Badator, ala ez dator?*

Borroka.

Aida: *Ixo! Norbait dator!*

Musika. Irene eta Ander sartu. Dantza.

Sarai: *Aizu, sartu arkatza nahi duzun lekutik!*
Iñigo: *Eee!!! Kontuz!*
Iraia: *Etxerako lanak egiten nabil, beti bronkatan.*
Imanol: *Utzi etxerako lanak kopiatzen.*
Gaizka: *Zer?! Ez dakizue ezta etxerako lanak egiten ere, ala?*
Eder: *3 urteko umeentzako modukoak dira eta!*

Sabri: Ufff... Paso egiten dut Ikastola honetaz... Hondartzara joan nahi dut!!!
Izas: Itxaron! Zurekin noa!
Andrea: Makarra batzuk zarete denok.
Irene: Kaixo!
Ander: Kaixo!
Irene: Kokoteraino nago!
Denak: Uuuuuu...
Ander: Zer dela eta jarrera hori?
Irene: Denbora guztia ematen dute gu zirikatzen.
Ane: Uauuu. A zer gona! Non erosi duzu? Boluetako merkatu txikian?
Haize: Ikasi nigandik. (Dantza)
Ader: Ale, egizu berdina!
Aida: Bere laguna zara, ezta? Ba, lagundu!!!
Ander: Utz nazazue...
Sarai: Zer... lotsa!!! Kar-kar-kar!
Itsasne: Uiii, gure laguntxoak lotsati xamarrak dira.... Kar-kar!

Musika. Txirrina.

Mikel: Patiora!

Musika. Koreografia. Zirikatzen (jotzen).

Sabri: Hara nor datorren!
Andrea: Falta zena!
Izaskun: Zatozte, zatozte!
Irene: Kaixo.

Musika. Biribila bueltaka. Zirikatzen.
(Ander eta Irene)

Ander: *Berriro ere?!*
Irene: *Bai...*
Itziar: *Kaixo, ondo zaudete?*

Zaratak entzuten dira. Bakarrik hitz egiten.

Ander: *Zer uste duzu? Zelan sentituko zinateke zu, beti bazter-
tuta egongo bazina?*
Irene: *Zelan sentituko zinateke zu, beti minduta egongo bazina?*
Ander: *Bakarrik berriro....*
Ane: *Uiii, bikotetxoa...*
Iraia: *Zure neska-laguna ote da? Kar-kar-kar!*
Denak: *Tariro-tariroooo...*

Musika. Koreografia. Papertxoa pasatu.
(Bakoitzak, atzetik, keinu bat egiten)

Itziar: *Kaixo Naia, kaixo Jon.*
Ander: *Zer nahi duzu?*
Itzi: *Ez naiz besteak bezalakoa...*
Irene: *Eta nola dakigu hori?*
Itzi: *Beste ikastola batetik nator. Eta badakit zelan sentitzen
zareten... Utziko didazue zuekin palomitak jaten?*
Ander: *Ez, amaitu dira.*

Besteak sartu.

Mikel: *Zer duzu hor?*
Izas: *Zertan zabiltzate?*
Julen: *Naiaren telefono-zenbakia lortu dugu.*
Mikel: *Berriro zirikatzen?!*
Irati: *Oraingo honetan pasatu zarete.*

Itsasne: A zer iskanbila!
Haize: Eeee, nire telefonoa da. Ez ahaztu!
Eder: Ez dugu Naiaren telefonoa galdu, ezta?
Haizea: Ale, jarraituko dugu!
Ane: Bai! Irrikan nago barre egiteko!
Ainhize: Zergatik ez ditugu argazki batzuk ateratzen?
(Barrez) Nor naiz?
Aiora: Naia zara!!!
Saray: Kar-kar! Bidaliko dizkiogu!

Badoaz.

Itziar: Nahikoa da! Honek ezin du horrela jarraitu! Zergatik dugu jarrera hau?! Zergaitik pozten gaitu besteak mintzeak?

Badoaz.

Koreografia. Egunkaria eta albisteak.

Ane: Itsasne, zer nahi duzu? Antzerkia entseatzen ari gara...
Itsasne: Aizue: bullyingari buruzko antzerki hau ez zait batere gustatzen...
Mikel: Bai... Gogorra, ezta?
Irene: Esaidazu niri, Ander!
Ander: Lehen ez nuen askorik ulertzen, baina, orain, gaia landu dugula.... Gogorra benetan...
Aiora: Tira ba, bukatutzat emango dugu gaurko saioa, orduan?
Imanol: Eskerrak klasean ez dugun horrelako arazorik izan...
Iñigo: Bai!! Gure klasean denok elkar maite dugu!
Denok: Elkar maite dugu!!!

Musika. Koreografia.

